

Araitz | Betelu | Larraun | Lekunberri

MAILLOPE

282

2020ko uztaila

TOKIKOM

natari
PRES



ZUEK IZAN ZARETE GU GUZTION ATERPE!



Jarrai ezazu
Maillope Aldizkaria
Facebook orrian!



Elixabete Balda Berakoetxea
 Uztailean 19an, 9 urte.
 Zorionak Pitxin!!!
 Segi orain bezain alai!!
 Muxu handi-handi bat etxekoen partez.

Malen Astiz Arangoa
 Uztailaren 7an, 3 urte.
 ZORIONAK PEXIOXA!!! Egun
 politta pasa!! Muxu handi-handi
 ta goxo bat etxekoen partez!!!



Markel Etxeberria Etxarri
 Uztailaren 22an, 2 urte.
 Zorionak Pitxin!!!
 Zorionak!! Muxu erraldoi bat eta primeran
 pasako dugu!

Ametz Goikoetxea
 Uztailak 16, 13 urte beteko ditu.
 Zorionak Amets! Izugarri maite zaitugu.
 Ongi pasa zure eguna. Etxekoen partez.



Iraia Elordi Sanz
 Uztailaren 18an, urte 1.
 Zorionak prexioxa!! Segi horrela, hain
 alai eta txintxoa izaten.
 Ongi pasa zure urtebetetze egunean.
 Muxu handi bat zure famili guztiaren
 partez!



Nerea Saralegui Betelu
 Uztailaren 14an, 9 urte.
 Zorionak Nerea! Zure eguna behar bezala
 ospatzea espero dugu. Muxu handi bat
 Marian, aita, ama eta etxeko guztien
 partez.



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
 Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

AGUNDU MAILOPE
 I AGUNDU MAILOPE
 I AGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

 **ALIPROX**
 Lekunberri
janaridenda
 hamabostaldi
 eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

M. Angeles
Urrizalki
iragarkiak,
berriak,
eskelak...
Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala
948513056
699179437

 **Atabal**
 okindegia
 Era askotako
 ogiak eta gozoak
 Etxez etxe
 banatuko dugu
 Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
 harategia


BERTAKO
HARAGIA
 Txistorra, txorizoa,
 saltxitxak,
 sukaldatutako platerak.
 Etxera eramateko
 zerbiztua ere eskeintzen
 dizugu.
 Antigua Kalea Nº7
 31890 BETELU
 Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com



02 KUXKUXEAN: Uztaileko zorion agurrak.

04 ELKARRI MOKOKA

06 IRITZIA

08 ELKARRIZKETA: Astitz eta Uitziko Aterpeak.

14 BATZARRE

16 LUZE ETA ZABAL

18 ERREPORTAJEA: Mendukilo.

22 KULTURA

26 PLAZATIK PLAZARA: Larraun Bizi.

28 EMOZIOEN MUNDUAN: Lorea Zulet.

30 MERKATU TXIKIA

• **MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:**

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzi eta Uztegi.

• **ARGITARATZEN DU:**

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

• **ERREDAKZIOA:**

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• **ARGAZKIAK:**

Labrit, Ricardo Bosch, Pedro Saralegi, M^a Ángeles Urrizalki, Astizko Aterpea, Mendukilo, Katixa Goldarazena eta Rafa Etxarri.

• **PUBLIZITATEA:**

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• **MAKETAZIOA:** Araitz Amatria.

• **TIRADA:** 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, Kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno de Navarra



Momentu txikiei zaporea ateratzen



●● Andrea Etxarri

Aupa Pello!

Elkarri mokoka, oilategiko oiloak jartzen diren bezalaxe, gehienak ere sartu izan gara amaigabeko eztabaida zo-roetan, gorputza nekatuta eta burua biraka uzten duten gatazketan. Bai, hala da, oraindik ere askotan gure eztabaidak modu onean bideratzea asko kostatzen zaigu, iritzia eta pertsona bereiztea kostatzen... baina zer litzateke bizitza gauzak eztabaidatu gabe? Eta kontu, eztabaidatzeaz ari naizenean ez naiz erasoaz ari, gai bat desberdin ikusteko aukera eskaintzeaz baizik, norberaren ideiak zalantzan jartzeaz, eta azken finean, egia bakarra ez dagoela ulertzeaz.

Mailopeko atal honetan parte hartzea proposatu zidatenean gustuz hartu nuen. Beti gus-tatu izan zait gai desberdinen inguruan nire iritzia ematea, besteek pentsatzen dutena ulertzen saiatzea edota beste batek nik pentsatzen nuenari hitz aproposak eman dizkiola ikusita disfrutatzea. Batzuetan ideia gehiegirik ez dudala onartuz edo behar denetan gaiaren inguruan informazio gehiago bilatuz. Atal honek niretzat bizitzan oso garrantzitsuak diren bi alderdi bermatzen ditu: adierazpen askatasuna eta besteen iritzia errespetatzea.

Azken hilabeteetan, ordezkarri politiko askok ere honetan bide luzea egiteko dutela erakutsi dute, ez dute ulertu Joseph Joubert-ek esan zuen bezala "Eztabaida orenen helburua ez dela garaipena, garapena baizik". Hizki bakarrak bereizten ditu, baina oso desberdinak dira biak. Hau honela, eztabaida garapen soziala ernatuko duen hazia da, denon iritzia balioa aitortu eta mokoa mina egiteko helburu bakarrekin erabiltzen ez badugu. Segi ezazue elkarri mokoka, gizartea hobetzea izanda erronka.



●● Pello Azpiroz

Ilepa Andrea! Zuk diozun bezala elkarri mokoka aritzen gara maiz gure egunerokotasunean, eztabaidatzea ohikoa den zerbait da. Ikasteko aukera gisa hartzen ikasi dut denborarekin. Eztabaida askoren ondoren atera dudan ondorio erabilgarri bat eztabaidan hasteak noiz merezi duen eta noiz ez konturatzea izan da, aberasgarria izango den ala ez kontuan hartuz. Honekin ez dut esan nahi oso gai garrantzitsuak edo konplexuek soilik hitz egitea gustatzen zaidanik (gehienetan ez da horrela), egunerokotasuneko gauzen inguruko diskusioen bidez ikasten da gehien nire ustez.

Entzuketa aktiboa (isilik besteak dioena arretaz entzutea) egiten saiatzen naiz, nahiz eta batzuetan ez dudan lortzen. Badirudi denok eman behar dugula guztiaren inguruan gure iritzia; nahiz eta, ezer edo ia ezer ez jakin, horrelakoetan ze garrantzitsua den isilik egoten jakitea.

Errespetuz eta modu egokian eztabaidatzen ikastea gehiago landu beharko litzatekeen ezinbesteko tresna bat izan beharko litzateke. Inguruan arreta jarriz gero, lotsatzeko modukoak diren zenbat eztabaida entzuten ditugu? Zenbatetan saiatzen gara gure iritzia plazaratzen eta ez bestea kosta ala kosta konbentzitzen? Dena motza eta azkarra izan behar den sare sozialetako eztabaidek ez dute ia ezer balio, ez dira batere eraikitzaileak.

Mailopek eskainitako aukerari baiezkoa ematea erabaki nuen, ni ere eztabaida zalea naizelako; eta baliagarria izan da nire ideiak garatzeko, zalantzan jartzeko, mugak ezagutzeko, modu ulergarri batean adierazten saiatzeko, hausnartzeko... Atal honetan idaztea ikaskuntza polit bat izan da eta gustura aritu naiz zuek biokin elkarri mokoka. Elkar zainduz goazen aurrera, ongi segi!!!






SAN MIGELEKO LAPURRA

Erik El Belga ezizenez ezagun egin zen eta 600 lapurreta baino gehiago egozten zizkioten. Balio handiko artelanak lapurtu zituen, tartean Aralar-ko San Migel Santutegiko erretabloa. Bere azken urteetan hainbat elkarrizketa eskaini zituen eta liburu bat ere kaleratu zuen. Joan den hilean hil zen.



LARRAUNGO EGUNAREN OMENEZ

Beste hainbat jai eta ekitaldi bezala, aurten ezinezkoa izan da ekainaren 22rako aurreikusia zegoen Larraungo Eguna ospatzea. Hala ere, herritarrei animoa altxatzeko, ibarreko hainbat gazteko abesti ederra sortu eta zabaldu zuten. Hemen duzue bideoa ikusgai.



ARALAR UDAL MUSIKA ESKOLA

Aralar Udal Musika Eskolak ez du bere lana eten azen hilabete hauetan eta eskolako saioak on-line eskaini dituzte irakasleek. Hala ere, arrazoi ezberdinetatik ez da erraza izan jarraipena egitea. Horregatik eta udal guztien adostasunarekin, familien inplikazioa nolabait eskertzeko eta eskola arrisku egoeran utzi gabe, kuotetan beherapenak aplikatuko dira.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Garikoitz Etxeberria (Lizartza)

*Gogoratzen al dituk
Larraun eta Araitz?
Ahaztuko nizkianan
ustetan ote haiz.
Urrun naukate baina
present dizkiat maiz,
oro har bertakoon
oroitzapen alaiz.*

Doinua: "Maritxu nora zoaz".

*Gertuko dituk Larraun ta Araitz
ta bereziki Gorriti.*

*Bertaratzeko senide, lagun
asko izan nitun aitzaki,
orain Mailopek hilero-hilero
gerturatzen nau poliki
eta Herria arnas dezaket
preso egon arren urruti (bis).*

*Doinua: Lazkao Txikiren sarrerako
doinua.*

**Joseba Goikoetxea
lehengusuari jarritako
puntua:**

Normaltasun berria
inposatuz doa

Oinak:

Osasunak, dugunak,
isunak, astunak,
dirudunak.



IZAN BIDEA, IBILTARIEN SAREA

ZER DA IZAN BIDEA?

Izan Bidea preso eta iheslarien etxeratze bidea, elkarbizitarako bidea eta bakerako bidea egin nahi dugun ibiltarion sarea da. Konponbidearen alde kilometroak egiteko batu garen milaka eta milaka herritarrek abiatutako dinamika.

Dinamika hau erronka batean oinarritzen da; 3.127.326 km egitea, hau da, Euskal Herriak dituen biztanle adina kilometro.

Kilometro hauek oinez, korrika, igerian, bizikletan, dantzan, eskalatzen, piraguan, patinetan... nahieran egingo ditugu, betiere motorrik erabili gabe! Gure aldarriak soinean hartu eta ibilian dabilen herri bat izan nahi dugu.

Horretarako hainbat bide izango ditugu; batetik, gure herri eta auzoetan Sarek edota bestelako elkarte edo taldeek antolatutako ekimenetan parte hartu eta urratsez urrats kilometroak gehituz. Bestetik, lagunartean, erronka txikiak ezarri eta hauek Izan Bidea aldarria soinean daramagula betez. Eta azkenik, bakarka ere gure ekarpena egiteko aukera izango dugu.

Ez ahaztu ordea:

1. Aldarriak kaleratu eta bidea ahalik eta jende anitz eta gehienarekin egitea da helburua, beraz, banaka, zein taldeka, eraman dezagun soinean Izan Bidearen kamiseta, besokoa, pegatina, kartela...

2. Egindako ekintzaren argazkiak atera eta eskegi sare sozialetan #IzanBidea eta #IbiltarienSarea traolak baliatuz.

Zabal dezagun guztion artean dinamika erraldoi honen mezua. Egindako kilometroka kuantifikatzeko mugikorretarako aplikazioa izango dugu, Izan bidea izenpean topatuko duguna. Deskargatu eta ekin bideari!

Aplikazioa deskargatu eta zabaltzean izena eman behar duzu. Erregistratu dohainik-en gainean klik egin. Izen-ematean bete beharreko datu guztiak amaitzean egin klik sortu tekla.

Hasi gaitzean bidea egiten!

Zure ekimena erregistratzeko bi aukera dituzu: "jarduera" klikatuz zure ibilbidea mugikorrek automatikoki jasoko du. (Mugikorraren GPS-a aktibatuta izan behar da horretarako) "Eskuz" klikatuz gero, egin duzun ibilbidearen datuak (kilometro kopurua... Adibidez 3.5km sartzeko, erabili puntua) zuk zeuk sartu beharko dituzu.

Zure "jarduera" amaitzen duzunean ez ahaztu "Gelditu" botoia sakatu behar duzula, bestela jarduera horrek martxan jarrituko du.

Honekin, #IzanBidea aplikazioa erabiltzen hasteko behar duzun guztia daukazu. Eskerrik asko gure ibiltarien sarearen parte izateagatik.

Izan bidea App-a Androiderako estekan edo QR kodea eskaneatuz: labur.eus/appizanbidea.

Araitz-Beteluko Izan Bidea

etxerako · elkarbizitarako · bakerako

izan bidea
ibiltarien sarea

ARAITZ-BETELUN
izan bidea dinamikarekin bat

Hileko azken ostiral ibiltariak
20:30tan Betelutik, Arribera eta buelta

Hitzaldi/aurkezpana:

Uztailak 11, larunbata 18:00 - Intzako herriko etxean

- **Txus Goikoetxea** (Preso ohiak bere esperientzia azalduko du)
- **Mikel Mundiñano** (Izan bidea dinamika aurkeztuko du)

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

EITB-K NON DU BURUA?

Horixe, bai jaun-andreok! EITBk non du burua? Are gehiago, ba al du bururik? Segur aski, bai, baina asko eta askotan ez da gehiegi nabaritzen. EITB euskara-kalitate onekoa, ulertzen da- bultatzeko sortu omen zuten, baina gero ikusten dugu, askoz ere gehiago inbertitzen dutela ETB2n, esate baterako, ETB1en baino. Ez hori bakarrik, baizik eta oso sarritan gainera, euskarazko telebistan, iragartzen dizkigute ETB2ko programak, euskaldunok beren erdarazko telebista-ko programa zoragarri erdaldun horiek ikus ditzagun, eta, era horretan, mendeetako tradizio baldar horrekin aurrera jarrai dezagun, alegia, gehiago espainiartzen (Iparraldean, frantsesten) eta, ondorioz, erdal hizkuntzak eta kulturak hobeki jakiten gureak baino; hau da, erdaldun peto-petoak bihur gaitezen, eta harrotasunez gainera. Ondorea, denok dakiguna da: ETB1ek %1eko audientzia (ziur asko, bere historia osoko txikiena), eta, ETB2k, ordea, %12-%14koa; erdiak baino gehiago gainera, euskaldunak. Argi dago, inbertitu gabe ez dago miraririk egiterik!

Baina goazen pixka batean, ETB1en erabiltzen duten euskararen kalitatea aztertzea. Konparaziora, azken bospasei aste hauetan aspertu arte entzun dugu albistegietan ditxosozko <aforo> hitza, beste perla askoren artean. Bueno, bada, ikus dezagun zer agertzen den Euskaltzaindiaren Hiztegian <aforo> hitza bilatuz gero: (Oharra: Euskaltzaindiak, aforo-k euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, hitz hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. edukiera; neurketa). Horra hor, bada, zer-nolako jaramon egin dion ETB1ek euskararen akademiari!

Eta antzeko beste kasu batzuk bakarrik aipatzeagatik, hona hemen, edozein egunetan entzun edota irakurri ahal diren beste gozokeria batzuk, telebista berean: faltan bota (falta nabaritu); kuarentena (berrogeialdi); maskarilla (maskara); plantara igo/eraman (solairu, estai); elkar zaindu gara (elkar zaindu dugu); Ekliipse penunbrala (ilunantz); kontagiatu (kutsatu, erantsi); bakunatu (txertatu); sanitarioak (osasan langile, osasan-langile); dagokionean (dagokionez) eta abar, eta abar.

Norbaitek agian pentsa lezake nik gorroto diodala EITBri, eta esan beharrean nago, guztiz oker dagoela, are gehiago, nik ikusi eta entzuten ditudan hedabideak hauexek dira: ETB1, ETB3, Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea, EITB euskal kantak, BERRIA egunkaria, ARGIA aldizkaria, MAILOPE aldizkaria, Euskalerria Irratia, ADMINISTRAZIOko aldizkaria eta abar, eta bar. Besterik gabe, euskaraz bizitzen saiatzen naiz; ez dago beste misteriorik, eta, gertatzen dena, zera da, esate baterako, ETB2, Radio Euskadi, Radio Vitoria, DEIA, DIARIO VASCO, EITB musika eta abar, ez direla oso lagungarriak, zeharo euskaraz bizi ahal izateko.

Beharbada, eta, era berean, beste norbaitek esan lezake, ea EITBk nola jakinaraziko dizkien Euskaltzaindiaren informazio hauek denak, muduan zehar barreiatuak dauden bere erreportari guztiei. Erantzuna arrunt

erraza da: barne buletin baten bidez, gaur egun dauden zientzia eta teknologiarekin, oso erraza izan liteke, benetako interesa baldin balego.

Bukatzeko, nik euskara bere osotasunean estimatzen dut, baina, jakina, zenbait lekutan euskara jasoa behar da, eta ez zabarkeriarik.

Xanti Begiristain Madotz., Auritz

PRINTZAK URTE BETE

Izpiritu txarrak erre eta udako solstizioari ongi etorria ematearekin batera etorri zen Printza.

Formakuntza, eztabaida, bilera, amets eta denbora askoren ondoren, gure bidearen zati eta udara ekarritako printza. Itxaropen printza, zapalduon printza, gazteon printza, Lekunberriko printza, Larraungo printza, tunel ilunean nora jo erakutsiko digun printza eta gu, desjabetuok, indartuko gaituen printza.

Printza txiki batek piztu dezake txinparta, piztu dezake su aparta. Ez dugu su horrek dena erretzea nahi ordea. Belar txarrak erre eta momentu ilunetan bidea argi diezagun besterik ez dugu nahi; eta aldi berean, hori gutzia.

Zapalkuntza txikiena ere deuseztatu nahi dugunontzat, errealtatea bere osotasunean ulertu nahi dugunontzat, printza ez da helburu bakarra. Helburu handiagoak lortzeko pausu eta zentzua emango diogun, gure kontrolpeko tresna baizik.

Printzak ekartzen digu: baldintza, eskaintza, zaintza, langintza, zertaz mintza, jakintza eta nola ez, ekintza. Printzak ematen digu beste modu batera parte hartu eta harremanetarako aukera: elkartasunez eta maitasunez.

Zu etxekoandre, fabrian orduak pasatzen dituzun langile, ikasten gainditu ezinik edo bikainak ateratzen dituzun ikasle, etxean zauden amona eta berarekin zauden zaintzaile, zure lurraldea atzean utzita gurera etorri zaren adiskide, disfrutatzeke mozkorrak jasan behar izaten dituzun zerbitzari, etxetik alde egin ezin duzun gazte, lan finkorik gabeko, edozein baldintzetan zure denbora saltzera behartutako langile... zure argi izpiak osatzen jarraituko du printza! Gure arteko elkartasunaren bidez mantenduko ditugu zabalik ateak!

Ongi etorri eta, URTE ASKOTARAKO PRINTZA!

Printza

“Proiektu hau gure ametsa zen eta amets hori bete egin dugu”

Gogoratzen al duzu eskolako lagunekin lehen aldiz gaua etxetik kanpo pasatako txango hura? Eta lehen udaleku hura? Nolabait markatzen duten haurtzaroko bizipenak izan ohi dira. Euskal Herriko gazte asko eta askoren oroitzapen horiek Larraunen daude kokatuta, Astitz edo Uitziko Aterpera etorri ziren aldi hartan. Martxoaren hamahiru batean ireki zituzten Astizko Aterpeko ateak Bizkaitik etorritako bi bikotek eta 21 urte eta gero, egun berean amaitu dute euren ibilbidea bertan. Astitz eta Uitziko Aterpeak, Euskal Herriko udaleku eta kanpalekuen artean erreferente izatea lortu du, baina COVID-19ak eraginda ateak itxi egin behar izan dituzte. Koldo Urkiza, Nerea Albes, Inma Ruiz eta Jon Uragarekin “Peru” azkenengoz sartu gara Astizko Aterpera. Astebete baino ez da pasa garbiketa lanak amaitu zituztela eta hala ere, sartzera-koan eraikin itxiaren usaina hartu diote.

“Gure jardunaren %80 ikastetxe eta udalekuekin lotutakoa zen”

32 eta 36 urte bitarte zenituzten Bizkaitik hona etorri zinetenean.

Aurrez elkar ezagutzen zenuten?

Inma: Pixka bat, baina ez gehiegi.

Nerea: Koldo eta biok Santutxukoak gara eta Peru eta Inma Arrigorriaga-koak. Lagun berak genituen eta gero Londresen topatu ginen eta han harreman estuagoa egin genuen.

Koldo: Londrestik bueltan gure asmoa landetxe bat irekitzea zen eta beraiek ere herri txiki batean bizitzeko gogo bera zuten. Euskadi Información egunkarian (*Egin* itxi ondoren atera zen egunkarian) eraikin hau alokatzen zenaren iragarkia ikusi genuen.

I: Arrigorriagara etorri ziren iragarki hori ikusi zutela esanez eta handik hamabost egunetara genituen lanpostuak utzi genituen!

Peru: Dena utzi eta hona!

K: Lehenik Peru eta biok etorri ginen eraikina ikustera. Martin Juanena zegoen kontzejuan lehendakari. Egund hartan giltzak eman zizkigun eta asteburu horretan bertan irekitzeko aukera genuela esan zigun! [Kar, kar]

P: Giltzak eskuetan genituela bueltatu ginen, sinistu ezinik.

Haurrekin lan egiteko asmoarekin hartu zenuten eraikina?

K: Hasieran herri txiki batean bizitzea zen helburua, zehazki nola eginen genuen jakin gabe.

N: Baina umeekin lan egitea ere buruan genuen.

I: Peru eta Koldo komertzial moduan ikastetxek ikastetxe gure proiektua aurkezten hasi ziren. Eta horrela hasi zen gorpila martxan.



N: Garai hartan juxtu aterpeetako legedia aldatu zuten eta eraikinak ez zituen baldintzak betetzen eta gainera txikia gelditzen zitzaigun. Horregatik kontzejuari, ondoan zegoen herriko ostatuaren etxe zaharra berritzeko proposatu genion. Eraikin hau garai batean eskola zen eta beste berriz ostatua. Behin hori eginda, lo egiteko aski leku genuen, baina otorduak emateko txandak egiten ibiltzen ginen. Beraz, handik gutxira portxe hau egiten genuen.

Kontzertuak, bertso saioak, ospakizunak... ekitaldi asko antolatu dituzue hemen.

P: Denetarik, baita Bataio, Jaunartze eta Ezkontzetako bazkariak ere.

I: Gazteak, mojak, talde oso ezberdinak pasa dira. Behin ezkontza frantses bat izan genuen, ehun gonbidatu baino gehiagorekin eta menua zehazteko bilerekin eta guzti.

P: Komuneko gortinak ere aldatu genituen egun hartarako! [Kar, kar]

K: Hala ere, azken garaian, gure jardunaren %80 ikastetxe eta udalekuekin lotutakoa zen. Astez umeekin egiten genuen lan eta asteburuetan kuadrillekin, mendizaleekin, guraso elkarteekin etab.

Eta umeekin bazenuten esperientziarik?

K: Lehenengo urtean egokitzen ibili ginen, soldatarik gabe eta gu laurok eta haur bat ganbaran bizitzen. Poliki-poliki lanean hasi eta hemendik kanpo etxeak erosi genituen eta erritmoa bizkortzen joan zen.

I: Hasieran Koldo eta Peru agian sukaldean aritzen ziren eta ondoren, umeekin jarduerak egitera joaten ziren.

P: Nik umeekin txangoak egiten nituen eta kobazuloaren parera iristen ginenean, korrika etortzen nintzen sukaldean sartzeko.



Hainbat kontzertu, herri-bazkari eta ekitaldi antolatu dituzte urte hauetan guztietan. Arg.: Utzitakoa.

K: Nik bizitza osoa ostalaritzan lan egiten neraman.

N: Garai hartan, bigarren enpresa baten bitartez kudeatzen genuen begiraleen lana.

K: Bi enpresa horien bitartez nolabait kudeatzen genuen, baina orain dela hamaika urte inguru Iñaki Herran etorri zen gurekin kudeatzaile bezala lan egitera eta ordutik bostok hartu genuen ardura osoa.

Eta garai hartan kompetentzia handia al zegoen udalekuen artean?

P: Bazen, baina guk egin genuen komertzial lan hori ez zuen ia inork egin. Lan horri esker, pixkanaka etortzen hasi ziren eta urtez urte errepikatzen. Euskal Herri osotik etortzen dira. Gaur egun jada izen bat genuen eskola munduan, guztiek ezagutzen gaituzte. Ikusgarria da orain ikastetxe askotatik bidali dizkiguten gutun eta mezuak.

K: Bezeroen bila irteten ginen, ez ginen hemen gelditzen norbait etorriko zain.

I: Baina gero, momentua iritsi zen



Oraindik alboko portxea eraikitzeke zuela. Arg.: Utzitakoa.

“Erretiroa hartu aurreko azkeneko txanpan harrapatu gaitu”

*“Ixtea izan da 21 urte
hauetako ibilbidearen
alderik gogorrena”*

non denborarik ere ez genuen horretarako. Eta orduan Iñaki etorri zen.

Egunerokoan nola antolatzen zineten?

K: Lana ugaritzen hasi zitzaigun eta deiak jaso eta beteta genuenez, ezezkoa ematera beharturik ikusten ginen. Horregatik, orain dela hamaitza urte inguru, Uitziko Aterpea irekitzea erabaki genuen. Horrela eraikin bakoitzean 60 lagun ingururentzako lekua dugu. Autobus oso bat hemen eta beste bat Uitzin.

P: Sukaldean ni eta Koldo ibiltzen ginen, aste batean ni hemen eta bera han eta hurrengoan alderantziz, txandaka. Eta asteburuetan txandaka jai hartzeko. Ostalaritzatik lan egin arren, nahiko bizimodu erosoa lortu genuen.

I: Orain momentu onenean ginen. Dena antolatuta zegoen eta esperientzia handiarekin.

Inma eta Nerea, zeintzuk izan dira zuen ardurak?

I: Gu garbiketan, antolakuntzan, zerbitzatzen... Baina sukaldean ere aritu izan gara.

P: Egia esan, denok pixka bat denetik egiten genuen. Naturalki ateratzen zen zerbait zen.

K: Batzuetan gertatzen zen... Adibidez gaur berrogeita hamarreko taldeak alde egin eta bihar beste

bat etortzen zela eta denak jartzen ginen eraikina goitik behera garbitu, txukundu, oheak aldatzera...

P: Langileek egiten zuten lan bera egiten genuen, ez gara hemen agintzen bakarrik egon.

Eta begiraleen lana berriz Iñakik kudeatzen zuen...

K: Bai, Iñakik kudeatzen zituen begiraleak, paperak, erreserbak, jarduerak egiteko ideiak...

P: Bai, Iñaki oso garrantzitsua izan da.

K: Guk aleman bat behar genuen eta bera halakoa da, oso zorrotza lanean! [Kar, kar]

P: Buelta eman zion honi!

Bera ere Santutxukoa...

N: Bai. Lana eskaini genionean esan genion: “Lanpostu hau daukagu zuretzat, zu etortzen ez bazara ez dugu beste inor hartuko!”. Bagenekien pertsona egokiena bera zela eta hala izan da. Zalantzarik gabe, egin dugun apusturik onena izan da.

I: Eta ez bakarrik bere lana ongi egin duelako, berari esker, guk ere lan karga pixka bat kendu genuen. Lana gorantz zihoalako eta iritsi zen momentu bat non bezeroen harremanak behar bezala zaintzeko denborarik ere ez genuela. Beti korrika!

K: Azken batean proiektu honetako beste zutabe bat da, gu laurok bezain garrantzitsua izan da.



Zirku udalekuek izugarritzko arrakasta izan zuten.
Arg.: Labrit.

Bizi garen ingurune honek zer eskaintzen zion halako proiektu bati?

P: Dena. Etortzen ziren guztiak liluraturik gelditzen ziren bertako paisaiekin. Eta horrez gain, lasaitasuna. Errepidea dugu alboan, baina oso trafiko gutxikoa eta hemen irakasleek izugarritzko babesaz zuten, ez zuten ardura handirik hartu beharrik. Guk batez ere Haur eta Lehen Hezkuntzako umeekin egin dugu lan, eta Astitzen txikienekin gehienbat.

Eta zein jarduera mota egiten zituzten ikastetxeetako ikasleek?

P: Iñakik kanpaina hasi baino lehen, programa ezberdinak eskaintzen zituen eta eskolek hautatzen zuten bat edo beste. Normalean iritsi eta herria ezagutzera joaten ziren. Ondoren begiraleekin taldeka banatu eta bazkaltzera eta ondoren Mendukilora, edo Galtzagorriren herrira...

Mitologia ere asko landu duzue. Olentzerok izugarritzko arrakasta izan du zuenean, ezta?

K: Bai. Orain dela bost urte neguko hilabete horiek nahiko lasaiak zirela ikusita, Olentzeroren bueltan ikuskizun txiki bat prestatzen hasi ginen. Gauza xume bat egitea zen gure asmoa, baina izugarritzko arrakasta izan du. Iaz 1.500 pertsona pasa ziren hori ikustera. Eta Uitzin berriz Iñaki Perurenarekin lan asko egin dugu. Autobusean Peru-harri-

ra joan, bertan bazkaldu eta ondoren oinez Uitzira etortzen ziren.



Uitzin eta Astizko plazak haurrez bete ohi ziren udan. Arg.: Labrit.

Udaleku tematikoak ere egin dituzue...

K: Bai. Zirkoa, bertsolaritza, txirridula... Udalekuak gutxienez aste-betekoak izaten ziren eta programa osatuagoa izaten zen. Beigorriara joaten ginen, piraguan ibiltzera...

P: Ibarrek eskaintzen dituen baliabide natural, kultural eta zerbitzuez baliatu gara.

N: Tarteka herriko norbait etortzen zen eta esaten zigun: "Beno, zuek bi tabernan gelditzen bazarete eta zuen bikoteek Lekunberriko lantegiren batean lana topatzen badute akaso...". Baina esaten genien hori ez zela gure asmoa.

K: Kontzejuko kideei berdin



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



OKM

ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

“Aste batetik bestera urte osoko erreserbak erori ziren”

zitzaien 5 edo 25 urteko proiektua hitzartzea, berdin berdin urtebetean alde eginen genuela uste baitzuten! [Kar, kar]. Uste dut Martin izan zela hasieratik proiektu honetan konfiantza handiena zuena.

Zer izan da zailena?

K: Hau, ixtea! Momentu onenean ginen koronabirusa etorri aurretik. Denboraldi honetarako 50 erreserba baino gehiago genituen hartuak. Eta denak aurreko urteetan etorritako ikastetxeak ziren. Udalekuak, ondoren Olentzero, eta martxo aldera ikastetxeekin lan egiten hasten ginen eta berriz udalekuak. Hartua genuen bertako martxa.

P: Bezeroak ziurtaturik genituen ia. Lasaitasun hori izan dugu azken urteetan. Lana bagenuen.

N: Gainera urtetik urtera geroz eta lan gehiago genuen.

2007 inguruan hasi zen krisi ekonomikoko hark ez zuen proiektua kolokan jarri?

P: Ez. Hau ezberdina izan da eta gainera erretiroa hartu aurreko azkeneko txanpan harrapatu gaitu.

Nola hartu duzue erabakia?

K: Urtarrila eta otsaila beti izaten dira hilabete lasaiak, mantenu lanak egiteko eta erosketak egiteko erabiltzen genituenak.

P: Horregatik pandemiak denboraldirako erosketak guztiak eginda genituela harrapatu gintuen.

K: Martxoaren 9an bi ikastetxeetako taldeak etorri ziren. Uitzin zegoen talde gazteiztarrari handik hots egin zioten etxera bueltatzeko eta martxoaren 13an itxi egin genuen. Hala ere, etxealdiaren hasieran lasai egon ginen, zerbait laburra izanzen zela uste genuen. Ondoren, Aste Santuetatik bueltan lanean hasiko ginela pixkanaka... Baina poliki-poliki erreserbak erortzen hasi ziren. Gero, udalekuetara uztaila guztiz beteta genuen eta abuztua ere ia dena, beraz horiekin aurrera egiteko arazorik ez genuela izango iruditzen zitzaigun. Ekainean ordea, Eusko Jaurlaritzak udaleku guztiak bertan behera gelditzen zirela iragarri zuen eta dena gainera etorri zitzaigun.

P: Eta berehala irailerako eta urrirako genituen erreserbak bertan behera uzteko deika hasi ziren eskoletatik. Aste batzuetatik bestera urte osoko erreserbak erori ziren.

K: Uste dugu erabaki onena izan dela ixtea. Etorkizun hurbilean ez dakigulako noiz izanen genukeen lanean hasteko aukera. 50 haur elkarrekin lo egitea aurten ezinezkoa da eta datorren urtean ere ez dakigu. Eta asteburuetan bestelako taldeekin lan egiteko ere... 60 otordu eman ahal izatetik 30 ematera pasako ginatke orain.

Ez da bideragarria?

P: Ez, honek dena beteta zegoela funtzionatzen zuen.

I: Zer egin baloratzen ibili ginenean

IORTIA EL INCA ESTETIKO HORTZ ESTETIKA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

ohartzen ginen ez dela bakarrik berriro udalekuak egiteko baimena izatea. Baimena izanda ere, ez dakigu irakasleak prest egonen liratekeen, eta gurasoak aski konfiantza izanen luketen euren seme-alabak bidaltzeko. Gainera umeak oso erraz gaixotzen dira bestela ere. Beti izaten da baten bat sukarrarekin edo hoztu egin dela, erorikoak...

P: Irakasleek ere ez dakite nola egiten duten lan datorren urtean eta txangoak egitekotan ziur aski egun batekoak izanen dira, beraiantzat ere izugarriko ardura da. Eta ez daude orain horretan pentsatzen. Oinarriko edukiak ematen aski lan izan dute. Normala den bezala lehentasunak beste batzuk dira.

Beraz ixtea erabaki zenuten...

P: Bai. Ez genuen kreditu bat eskatu eta zorpetu nahi.

I: Urte hauetan guztietan zehar kredituak egon dira eta beldurrik gabe egin diegu aurre, berdin zitzaigun horretarako lan gehiago egitea, baina orain arazoa da ez dugula ikusten buelta noiz izanen den. Kreditu bat eskatuta ere, ez dago gure esku.

P: Ekainaren amaierara arte itxaron dugu langileek aldi baterako erregrulazio bereziak kobratu ahal izateko eta dena behar bezala ixteko.

N: Hornitzaile eta langile guztiei ere ordaindu diegu eta lasaitasun horrekin uzten dugu proiektua, etapa berri bat hasteko. Poz hori dugu, denek ez dute hori egiteko aukerarik izanen.

Eta animoz zer moduz zaudete?

K: Ongi. Uste dut gu animatuago gaudela gure inguruko jendea baino. Herritar askori pena ematen die guk hau itxi izana eta sentitzen dutela esanez hurbiltzen zaizkigu.

P: Batzuek aurreratu egin gara esaten digute, baina ez dugu mugimendurik ikusi.

K: Bideo bat sortu genuen agur moduan eta denbora gutxian ikustaldi asko izan zituen eta mezu asko jaso genituen.

P: Bi astez egon gara hemen jo eta ke dena garbitu eta husteko. Herriak ere lunch bat eskaini zigun agurtzeko. Oso polita izan zen. Herri osoa

elkartu zen hemen. Kobazulokoak ere egin ziguten agurra. Behintzat harro egoteko arrazoiak ditugu, lana ongi egin dugunaren seinale.

N: Ez dago ixteko modu hoberik. Onen-onenean utzi dugu. Bai gure aldetik dena eman dugulako eta baita jendea gurekin gustura zegoelako ere.



Astizko jaietako hainbat ekitaldi Aterpean egin ohi ziren.
Arg.: Labrit.

P: Astiz eta Uitziko herriak oso ongi portatu dira gurekin.

N: Proiektu hau gure ametsa zen...

P: Eta amets hori bete egin dugu! Ni atzo bertan negar batean egon nintzen.

N: Ez hasi... bestela ni ere hasiko naiz orain...

I: Nik ere garbiketa lanetan ibili garen aste hauetan burua bueltaka izan dut. Badakigu aurrera egingen dugula, baina tristura dut hau uzteagatik.

K: Pena ematen du negozioa honaino iristea eta utzi egin behar izatea.

Eta Bizkaira bueltatuko zarete edo bertan gelditzeko asmoa duzue?

N: Jaso ditugu hara bueltatzeko eskaintzak, baina aldaketa handia litzateke.

K: Eta egia da bailara honetan oso gustura gaudela.

P: Hemendik alde egiteko aukera, guk etxean ezin dugu aipatu ere egin. Semeak ez daude hemendik mugitzeko prest! [Kar, kar]

I: Baina guri ere ez zaigu burutik pasa ere egiten.

P: Hala da, nik behintzat hemen nire tokia izatea lortu dut!



Olentzero eta Mari Domingik azken bost urtetan Astitzera egiten zuten bisitak familia asko eta asko biltzen zituen. Arg.: Labrit.

JENDE PILAKETARIK GABEKO LORE ETA LANDARE AZOKA AURTEN



Lore eta Landare Azokaren bigarren edizioa izan zen joan den hileko bigarren igandean Lekunberriin. Bertako Udalak, Dekolore Elkartearekin batera antolatu zuen. Landare, lore, sendabelarrekin egindako produktu eta landare nahiz loreekin egindako itxi eta apaingarrien 10 postu jarri ziren Lekunberriko Alde Zaharrean. Horretarako, beharrezkoa izan zen azokaren eremua ixtea, sarrerak eta irteerak kontrolatzea, eskuak desinfektatu eta maskarak erabiltzea. Azoka horrek erosteko ez ezik, ikasteko ere balio du. Asko eta asko baitira landare eta loreek dituzten onurak eta erabilpenak, bakoitzak dituen ezaugarri eta beharrek. Postuen artean zegoen besteak beste Joseba Ordoki zinegotzia: *“Hasieran errespetu eta ikara handiz atzera egin genuen antolaketan, baina ondoren azokez bizi diren pertsona horiek laguntzeko modua bilatu beharra zegoela kontziente izanda aurrera egin genuen. Jendea ez pilatzeko eta distantziak mantentzeko beharrezko neurriak hartu ditugu. Ea pixkanaka udan egon ohi diren hainbat eta hainbat azoka azkenean egiteko bidea topatzen den, bestela zenbait ekoizle eta artisauek ezinezkoa izanen dute bizirautea”.*



BERRI TXARRAK TALDEAK BERE IZENA DARAMAN PLAZA IZANEN DU LEKUNBERRIN



2020ko Vianako Printzea Saria irabazteko hiru hautagaietako bat da Berri Txarrak taldea. Carlos Canovas argazkilaria eta Jaime Ignacio Del Burgo politikaria dira beste biak. Larraun eta Lekunberriko udalek eta Aralar Udal Musika Eskolak aurkeztu zuten hautagaitza. Orain, Kultura eta Artearen Nafarroako Kontseiluko kideek hartuko dute erabakia. Uztailaren 17an aurkeztuko dute hautagaitzaren defentsa eta egun horretan bertan ezagutuko da saridunaren izena. Bestalde, Lekunberriko Udalak taldearen omenez “Berri Txarrak” izena jarriko dio herriko pilotalekuaren alboko plazari. Bertan dagoen jolas parkearen aurrean ikus daiteke dagoneko egindako murala.

ARALAR IRRATIKO ESATARI IZAN NAHIKO ZENUKE?

Lekunberriko Udalak Aralar Irratiko esatariaren ordezkapenerako lan-poltsa zabaldu du.

Uda honetan, abuztuaren 3tik 28ra bitarte, modu presentzian lan egiteko esatari bila dabilta, baina lan-poltsa hori urtean zehar sortzen diren beharretarako ere erabilgarria izanen da.

Lanaldi erdia eskaintzen da, astelehenetik ostiralera, 10:30etik 14:30era.

Hauk dira aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Curriculum.
 - Euskararen ezagutza maila erakusten duen tituluaren kopia (horrelakorik eduki ezean, elkarrizketa egiteko eskaera aurkeztu beharko da).
 - Irratiko programazioaren proposamena.
- Uztailaren 10ean (14:30ean) amaituko da proposamenak presentzian edo telematikoki aurkezteko epea Lekunberriko Udaletxean (948 504 211 / bulegoak@lekunberri.eus).

ARALAR, NATURA 2000 SARIKETAKO FINALEAN



Landarlan Ingurumen Elkarteak 2018an Aralar mendilerroari buruz dokumental estreinatutako "Aralar, mundua leku den lurra" dokumentala Natura 2000 sarietako finalean da. Europar Batasunak azken bi urteetako ingurumeneko 27 proiektu onenen artean kokatu du. Beste lau lanekin lehiatuko da komunikazio-proiektu onenaren saria lortzeko. Gainera, herritarren saria lortzeko helburua ere badu elkarteak, eta sari hori boto gehien dituen proiektuari ematen zaio. Horregatik Landarlan Ingurumen Elkarteko kideek herritarren boza eskatu dute. "Guretzat sinestezina da Aralar bezalako mendilerro enblematiko bati buruzko proiektu bat EBko onenen artean egotea". Irailean amaitzen da boza emateko aukera.

Ikusi ezazu trailerra:



Eta bozkatu:



BERTATIK BERTARA ERE GOZA DAITEKEELAKO

Ekainaren 19an jarri zuten martxan UEMAK eta hainbat udalek (tartean Araithz eta Larraungo udalak) Bertatik Bertara kanpaina "gure herria, gure hizkuntza eta gure produktuak" aldarrikatzeko. Udalerri euskaldunek beren baitan biltzen duten aberastasuna ikusaraztea eta aldarrikatzea du helburu sentsibilizazio ekimen honek.

"Osasun larrialdiaren ondorioz, inoiz baino gehiago, gure bazterrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dugu hurrengo hilabeteotan. Bertatik Bertara kanpainarekin, herritarrei eta bisitariei udalerri euskaldunetan, bertatik bertara, zenbat goza daitekeen erakutsi nahi zaie. Bertako produktu, bertako kultura eta bertako ekonomian oinarritutako garapenari helduz eta euskara ahaztu gabe". Bestek beste, jatetxe, taberna eta ostatuetan otorduren bat egiten duen edonork mahai gainean ikusi ahal izango du kanpainaren mantela eta hainbat kartel banatuko dira.

Udazkenetik aurrera berriz, bertako produktuak eta elikagaiak, lehen sektorea laguntzeko ekimenak edota ekonomia sozial eraldatzen laguntzeko bideak aztertuko dira.



BI SAIOREKIN BOROBILDUKO DU LARRAUNGO UDALAK OTSAILEAN ABIATUTAKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA

Larraungo Udalak joan den otsailean inkestak zabaldu zituen bai etxez etxe eta baita bertako eragile eta kontzejuen artean ere. Koronabirusak sortutako egoera dela eta inkesta betetzeko epea apirilera arte luzatu zen eta dagoeneko bertatik ateratako ondorioak prestatu dituzte. Orain bi saio ireki egingen dira, landutako informazioa oinarri hartuta herritar, udal ordezkari eta eragileen artean lanketa egin eta bide-lerro bat zehazteko. Lehen saioa uztailaren 3an egin zen Larraungo udaletxeko bigarren solairuan. Espazio horri zein erabilera emanen zaion zehaztuko du besteak beste prozesu honek. Bertan, Aztiker Ikerguneko kideek galdetegiarekin ondorioak aurkeztu zituzten eta batzuen eta besteen iritzia elkar trukatu zituzten.

Udala oso pozik agertu da lehen faseak izan duen bilakaerarekin: "Arro sentitzen gara prozesuaren ibilbideaz baita aurkitzen dugun parte hartze aberatsaz ere (herritarrek, eragileek eta kontzejuek egindako ekarpen aberatsetan oinarrituak). Larraunen etorkizunarekiko hausnarketan aurkitzen den aniztasuna eta konpromisoa ikustek pozten gaitu. Argi azaleratzen da behar ezberdinak daudela eta horietako batzuen lehentasuna. Zorionez, dauzkagun azpiegiturari ematen zaizkien aukerak bide asko irekitzen dituzte". Bigarren saioa, uztailaren 18an izanen da.

Kasuak eta kaosa

Argi dago mundu mailan bizi dugun egoera ez dela gozoa, ez da egoera erakargarri edo atsegina. Ez dugu merezi, inork ez duelako merezi, bakarrik, agur esan gabe hiltzea, ezjakintasunak eta kutsatu edo kutsakor izatearen aukerek, sortzen duten beldurra, besarkada eta musuak ukatu eta debekatu izana. Inork ez du halakorik merezi.

Baina hau, uneoro gertatzen da, uneoro eragiten ditugu horrelakoak munduan, horrelako bidegabeberriak, inongo arrazoi eta gupidarik gabe, konturatu gabe askotan. Kaltetu zuzenak ez garenean errazagoa da mina. Ez da uste dugun bezain berezi edo berria. Izurriteak, gaixotasunak, bakteria nahiz birusak, gu baina zaharragoak dira, eta gu baino askoz ere boteretsuagoak. Hasiera izan ziren eta amaiera izan daitezke. Ezin ditugu begiekin ikusi, ez txikiak direlako, begiratzen ez dugulako baizik. Handitasunaren itzalari jarraika, estereotipo, arau eta argibide nahaspila erraldoiari begira bizi gara. Handitasun handiagoaren bila egiten dugu borroka egunero.

Mundua arakatzaz amaitu dugu, gure desirak handiagoak dira eta ezin ditu ase. Mundu berriak sortzen hasi gara, betaurreko batzuk jantzi eta "errealitate" berriak aurrez-aurre. Nahi dugunean, nahi bezala eta nahi bezain beste.

Mundu horiek ere handiak izaten dira gehienak, izaki boteretsu garaiezin bat agintari, errealitate apokaliptiko kaotikoan, salbatzaile bakarra, gu. Gizateriaren etorkizuna gure esku. Zein gozoak diren mires-



mena eta boterea gu garenean istorioetako izarrak. Herculesen kontaktuzuna, zein zaharra eta zein berria.

Betaurreko horiek ordea, ez dira mundu berrietara sarrerak, gure mundua, begiak estaliz ikusteko erremintak dira. Ez dira benetakoak, armari moduan hartu eta babestuak sentitzen gara. Errealitateari eta krudeltasunari askatasuna eman. Dena da justifikagarri. Izaki bizidunen benetako izatea eta oinarritzko instintuak. Krudeltasuna. Mundu horien, misterio, magia eta erakarpen indarra, ezagutzen ditugu eta gustatzen zaizkigula ikusi, baina aitortzeak gu bihurtzen gaitu kaosaren sortzaile. Orduan, berriro ispilura gerturatzen gara. Artalde handira, ingurua lausotuz eta begiak irekiz.

Jarrai dezagun handitzen eta handitzen eta, oraindik ere handiagoak bihurtzen, estralurtarrak, eguzkia, galaxiak, infinitua eta ezereza txiki geratu arte.

Orduan, agian, handitasuna menderatzen, txikitasunak erakarriko gaitu. Mundu txikiak ikertuko ditu-

gu, nahiz eta onartzea kosta, zein ahulak garen ulertuko dugu. Ikusten ez dena, baina badena, hor dagoelako. Jainkoa bezala, handitasunean, handiena. Baina horretan sinetsi badugu, zergatik ez erokeria bat egin eta zientifikoki demostratutako zomorrotxo horiei ere nolabaiteko sinisgarritasuna eman?

Benetan hiltzen da jendea, benetan hil da jendea, eta benetan hilko gara etorkizun batean ere. Pandemia. Pandemia. Pandemia. Nazkatu arte entzun behar baduzue ere. Nazkatzeak esan nahi du bizirik zaudetela, bizitzaren parte direlako bai nazkatzea, bai aspertzea ere.

Eskerrak eman behar zaizkio noizbehinka aspertzeari. Askok hau horrexegatik irakurri duzuela soberan dakit. Aspertuta zinetelako. Ni pozik. Alor guztietako publikoa. Hori bai komunean bazarete, ez utzi aztarnarik amaitzean. Ondorengoek eskertuko dute. Eta mesedez, kasuen izenean, garbitu eskuak.



luze

Leire Aranburu

Gizatasun galdua berreskuratzeko beharra

Azken hilabeteotan munduan zehar zabalduko koronabirusaren pandemia izan da gai mediatiko nagusia. Hedabideen jarrera ikusita, koronabirusaren pandemia munduko arazorik larriena dela irudituko zaio askori. Baina aspaldi, badira munduan beste pandemia askoz larriago batzuk.

Esaterako, munduko eskualde pobreenetan goseak eragindako triskantzak daukagu. Nazio Batuen Erakundearen 2017ko datuen arabera, argitaratuta dauden azken datuen arabera, alegia, munduan bost segundotan behin ume bat hiltzen du goseak. Artikulu hau irakurriko duzunera, hainbat ume hil dira goseak jota. Egunean, 8.500 ume; 3.102.500 urtean. Urte horretan bertan, 15 urtetik beherako 6,5 milioi ume hil ziren goseak eta ekidin zitezkeen beste arrazoi medio. Areago, bost urte baina gutxiagoko 155 milioi ume omen zeuden une horretan goseak jota biziraute. Zifra hauek ikaragarriak iruditzen zaizkit idazteko ere. Mingarria egiten zait honetaz idaztea. Baina aipatzen ari naizen hau, hedabideek oso gutxi jorratzen badute ere, hortxe dago. Arazo hau mundu osoan dago zabaldua eta gero eta larriagoa da.

Gosea eragiten ari den faktoreetako bat, klima aldaketa omen da. Aspaldi dakigu klimaren berotzeak eragin zuzena eta azkarra izango zuela herrialde pobreenetan. Uztak galdu, lurrik idortu, uraren eskasia, migrazio ikaragarri handiak eta beste kalte asko ekartzen ari da. Baina ez soilik klimaren berotzeak, plane-



taren zoko askoren gehiegizko usiaketa eta oinarritzko gaien neurri gabeko erabiltzea. Zaborra nonahi pilatzen ari da neurririk gabe, plastikoa itsas guztietara zabaldu dira; kutsatu ditugu atmosfera, lurra, ur edangarria... Zerrenda amaigabea da dagoeneko. Eta honek ere, eragina du zuzenean jendearen bizi kalitatearen gainean.

Areago, hauetako bat aipatzeagatik, airearen kutsadura hain zuzen ere, kalte handiak ari da sortzen lehen munduko hainbat herrialdeetan ere, hiri eta eskualde industrializatuetan batez ere. Munduko Osasunaren Erakundearen arabera, 2019. urtean, 7 milioi hildako baino gehiago eragin zituen munduan, hauetatik 1,7 milioi bost urte baino gutxiagoko umeak. Espainian ere airearen kutsadurak hildako asko sortzen ditu urtero. 10.000 baino gehiago aurreko urtean soilik.

Esandako guztiak asko badira ere, oraindik falta zaizkit beste pandemia batzuk aipatzea. Malariak, urtero 200 milioi lagun baino gehiago kutsatzen ditu eta hauetako 600.000 hil egiten dira, hauetako bi heren bost urte baino gutxiagoko umeak dira, minutuero ume bat hiltzen da. Baina, gainera, munduko populazioaren erdia egon daiteke malariarekin gaixotzeko arriskuan.

Segi nezakeen datuak eta datuak ematen, hedabideek azken hilabeteotan egin duten bezala. Zerbait aipatzeagatik, gaixotasun kardio-baskularrek eta minbiziek, Espainian urtero ia 200.000 lagun hiltzen dituzte. Aipatutako guztia ez da arazoa, arazoa beste bat da. Hauek sintomak dira. Arazoa da zer ari garen egiten gizakiok gure planetarekin eta batez ere geure buruarekin. Kontsumismo neurri gabea, gerrak, elkartasun eza, desoreka psikoemotionala eta beste faktore asko ari dira gure espeziea irteerarik gabeko amildegira hurbiltzen. Honen aurrean, geure sustraitara, geure bihotzera bueltatu beharra dago. Gure gizatasuna berreskuratu behar dugu. Gure espeziearen hasierako ezaugarrien artean besteak beste, elkarlana, elkarri zaintzea, enpatia eta naturaren parte sentitzea aurki ditzakegu. Hortxe dugu bidea, hori eta begiak zabaltea. Koronabirusa ez da samurra, baina munduan beste arazo oso-oso potoloak daude aspaldi eta gero eta larriagoak ari dira bihurtzen geure gizatasunari ez badiogu berriro heltzen.



Uda honetan Mendukilo bisitatzeko aukera ezin hobe

Joan den ekainaren 18an ireki zituzten berriro Mendukilo Kobako ateak. Uda honetan kanpotik datozen bisitariak nahiz bertakoek Aralarren magalean dugun lur azpiko jauregi magiko horretaz gozatzeko aukera izanen da, baina horretarako beharrezkoa izanen da COVID-19ak sortuta arriskuak ekiditeko babes neurriak ezartzea.

Erdira murriztu dute txanda bakoitzean sar daitezkeen bisitari kopurua. Orain, gehienez ere 20 laguneko

taldetan antolatuko dira bisitak. Eta horretarako, beharrezkoa izanen da aurrez erreserba egitea (948 39 60

95/ mendukilo@mendukilo.com). Gainera pertsonen arteko distantziak mantenduko dira eta sartu aurretik eskuak eta oinetakoak desinfektatu eta maskara jarri beharko da. Bestalde, eskudiruaren bitartez kutsatzeko arriskua saiheste aldera, sarrera txartelarekin ordainduko da.

2005eko uztailan ireki zen leizea bisitariarentzat eta geroztik ehunka eta ehunka izan dira 90 metroko desnibela duen koba horretan mailakaturik aurki ditzakegun gela ezberdinak ezagutu dituztenak. Altxor geologiko bat izateaz gainera, leizeek izan ohi duten kutsu magiko hori ere badu Mendukilok. Ekaitzetik babesteko erabiltzen zuten artzainen istorioak ekartzen dizkigu gogora, baita ihesan dabilen lapurrenak ere, etxean gorde ezin diren horiek gordetzeko armairu izan dira historiako momentu batzuetan, baita hilotzak ezkutatze ere eta, nola ez, sorgin eta pertsonaia mitologikoen egoitza. Hamabost urte hauetan egindako lanari esker, leizeak hainbat eta hainbat ekitaldi antolatzeko balio izan du. Bertso-saioak, antzerkia, musika emanaldiak, kolektibo ezberdinen elkarretaratzeak... Ekitaldi xumeenak ere bestelako dimentsio bat hartzen du bertan.

Hiru hilabetez ilunpean egon eta gero, leizeko argiak piztu egin dituzte lehen bisitariari harrera egiteko. Miren Larburu, Amaia Govillar eta Raket Navarro bertako langileak dira.





Miren Larburu eta Amaia Govillar Mendikuloko langileak dira eta pozik daude leizearen berrikeriarekin.

“Bai edo bai ezagutu beharrekoa da”

Nola gogoratzen duzue itxiera?

Alarma egoera ezarri aurretik izan genuen azken taldea Lazkaoko San Benito ikastetxekoa izan zen, martxoaren 10ean etorri ziren. Guk hilaren 13an, ostiralarekin, hartu genuen ixteko erabakia eta hortik aurrerako erreserba eta bisita guztiak bertan behera gelditu ziren.

Ekainaren 18an ireki zenuten... Zer moduz joan dira lehen aste hauek?

Asteburuan espero baino hobeto egin dugu lan. Hiru bisita genituen pentsatuta eta azkenean lau egin genituen lehen asteburuan. Bisitak ordubetekoak ziren lehen eta orain berriz, 50 minutukoak egiten hasi gara, taldetxoak lasaiago sartu eta irten daitezten.

Segurtasun neurri bereziak hartu behar izan dituzu, ezta?

Bai, taldeak murriztu ditugu eta beharrezkoa da alde aurretik erreserba egitea, gu geu hobeto antolatzeke eta kontrol zorrotzagoa eramateko. Koban sartu aurretik, beharrezkoa da oinetakoak eta eskuak desinfektatzea eta maskara jartzea. Barrualdea ingurune ahula da eta bertan garbiketarak egitea oso zaila da, beraz nolabait lortu behar dugu gu bisitan sartzen garenean ingurunea ez kutsatzea.

Udari begira ze aurreikuspen egiten duzue?

Ez dakit aurreko udarekin alde han-

dirik izanen den. Hasieran agian bai, baina uda bete-betea sartzen garenean jendea mugitzen hasiko dela uste dugu, eta katalanak, andaluziarak, madrildarrak eta penintsulako beste hainbat txokotako jendea izanen dugula. Uste dugu ongi eginen dugula lan. Egin behar duguna da segurtasuna eman jendeari. Maskarak jantzi eta neurriak betez gero, berdin gozatuko dugu.

Ikasturtean zehar zer gertatuko da ikastetxeetatik antolatzen ziren txangoekin?

Oraindik ez dakigu eskoletan nola eginen duten lan. Hala ere, aste honetan hiru erreserba egin dituzte jada hiru ikastetxetatik datorren ikasturterako. Hori ikusteak animoa ematen du. Beraiek ere ez dakite nola izanen den datorren ikasturtea, baina behintzat badirudi mugitzen hasi direla.

Udalekuak ordea bertan behera gelditu dira...

Bai. Guk asko nabaritu dugu Astizko aterpearen itxiera. Beraiekin oso ongi egiten genuen lan. Aterpera iristen ziren talde guztiak igotzen ziren Mendukilora eta hori atzemango dugu.

Zer izan da gogorrena?

Lasai gaude, agian irekieraren pres-taketa izan da gogorra. Zehaztea zer

eta nola egin. Baina behin antolatuta erraztu egin du gure lana. Orain jendea noiz iritsiko zain egon beharrean, aurrez erreserbak egiten dituztenez, antolatzeke aukera daukagu eta hori ongi etorri zaigu.

Etorkizunera begira zein proiektu dituzue esku artean?

Orain dela urte eta piko Caixako Gizarte Ekintzari esker eta ASORNA elkartearekin batera bisita egokitu bat eskaini genuen. Tabletak lortu genituen eta bisita baldintza horietara egokitu zen. Etorkizunean, kobazuloa fisikoki bisitatu ezin duten horientzat bisita birtualak eskaintzea gustatuko litzaiguke. Espero dugu hau guztia pasatzen denean horri ekitea. Proiektu garrantzitsua izanen da guretzat, horrek eskola, elkarte eta beste hainbat tokietarako joan eta lur azpi honetan dugun altxorra erakusteko aukera emanen digulako.

Eskualdean izanen dira oraindik Mendukilo ezagutzen ez dutenak...

Koba ezagutzeko oso momentu ona dela uste dugu. Normalean baino talde murriztuagoak izanik, egon diren horiek ere bisitaz lasaiago gozatzeko aukera izanen dute eta oraindik ikusi ez dutenen badute garaia. Hamabost urte dira ireki genuela eta etxe ondoan duten altxor hau ezin dute galdtu, bai edo bai ezagutu beharrekoa da.

“Zorte handia izan da halako lan bat egin ahal izatea”

Mendukiloko berriekiera ofiziala baino bi egun lehenago, leizean Ibarberriko ikasle eta guraso kuadrilla bat elkartu zen Patxi Zubizarretarekin batera. Jokin Mitxelenarekin elkarlanean kaleratu berri duen “Garalar Maralar” liburu bilduma aurkeztu zuen. “Goliat eta izarrak”, “Joanes eta kanpaiak”, “Aiert eta herensugea” eta “Maren eta azeria” liburuxkek osatzen dute bilduma. Hain zuzen ere, Aralarren aski ezagunak ditugun hainbat lekutan giroturik daude, San Migelen, Balerdin eta baita Mendukilon bertan ere.

Patxi Zubizarretak eta Jokin Mitxelenak ipuin kontaketa ederra eskaini zieten Ibarberriko hainbat ikasleri. Arg.: Labrit.



Zu ordiziarra zara... Zein lotura duzu Aralarrekin?

Gure attuna ataundarra zen eta umetatik kontatzen zizkidan Uharte Arakilen artzain edo laguntzaile aritu zen garaietako kontuak. Ordiziako etxetik ere txikitatik ikusi izan ditut Aralar eta Aizkorri, baina hurbiltasunagatik beti Aralarrean jotzen genuen. 2018an ekoiztutako “Aralar, mundua leku den lurra” dokumentala ikusia nuen eta oso polita iruditu zitzaidan, dotorea. Eta ondoren, aukera hau eskaini zidaten.

Beraz, dokumentalaren bitartez sortu zen bilduma hau egiteko proiektua...

Bai, Landarlan Elkarrekin ondoren, dokumentalaren gidioa nolabait liburu

batean jaso zuen, baina zenbaitek eta batez ere irakasleek hurrekin lantzeko materiala behar zutela esaten zidaten. Eta Jokin Mitxelenari proposatu nion elkarrekin lau liburu sortzea. Zorte handia izan da halako lan bat egin ahal izatea. Kasu honetan, oso hurbilekoa nuen eta ederra zitzaidan.

Aurkezpena Iruñeko Katakraken egin duzue, baina ondoren Mendukilora etorri zarete...

Bai, Mendukiloko langilea den Miren Larburuk lagundu zidan kobazulo ko historia ezagutzen eta ahal zela bertan ere egin nahi nuen. Gaztetan, bizikletaz Larraitzera joan eta Ganbo inguruan, zapatilak erantzi eta Alotzako iturritik ur freskoa edaten arituko banintz bezala sentitu naiz gaur. Ur freskoa, ederra, garbia...

Mitologia, natura, historia... Hainbat alor uztartu dituzu ipuinetan.

Bai, herensugearen ipuina esaterako, mitologiarekin gehiago lotzeko ahalegina egin dut eta azpian duen esanahia ulertarazi, azken batean herensugeak gizakiok izaten ditugun beldurrak irudikatzen ditu. Artzainen irudia ere gaztetxoengana hurbiltzea zen nire helburua. Natura defizit bat daukagu gaur egun. Uko egin diogu izaera horri eta liburu hauen bitartez, berrituz ere Aralarren bertan dugun altxor horretara hurbilarazi nahiko nituzke.

Zozketa!!

Aralarko istorio asko eta asko daude. Erlijioarekin lotutakoak, artzainen kontakizunei buruzkoak, mitologian oinarritutakoak, mendizaleek bizitakoak...

Oraingo honetan Aralarren girotutako ipuin laburra idazteko eskatuko dizuegu. Bidali ezazu zeure ipuina mailope@labrit.net e-postara eta parte hartzen duzue non artean, Patxi Zubizarretaren eta Jokin Mitxelenaren liburu sorta zozketatuko dugu!

Animatu eta parte hartu!



Bazen behin...



Patxi Zubizarreta eta Jokin Mitxelena liburuak sinatzen. Arg.: Labrit.

mailope
txiki



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

UHARTE



Katixa Goldarazenaren artelanak, abuztuaren 30era bitarte, Uharte Zentroan ikusgai

Orain bi urte elkarrizketatu genuen gurean Katixa Goldarazena eta geroztik gelditu gabe lanean dabil artista arruiztarra. Joan den ekainaren 26an beste zortzi artistekin batera osatutako erakusketa aurkeztu zuten Uharteko Arte Garaikide Zentroan. "Zortzi eta bederatzia artean" izena du erakusketak eta 2019an Uharteko Zentroak Nafarroako Gobernuak Kultura Departamentuarekin batera emandako diru-laguntzen onuradunen erakusketa da. Abuztuaren 30era bitarte egonen da ikusgai eta Katixaren lanez gain, Maite Redondo, Raul Ursua, Elvira Palazuelos, Alfredo Zubiaur, Patxi Araujo, Jaione Michelena, Naia Mira eta Itsaso Iribarrenen lanak biltzen dira.

Nafar artista bisual eta argitalpenen ekoizpenei bultzada ematea helburu duen diru-laguntza baliatu zuen Katixak "Trampantojo paisaje entonces contenido" izeneko bilduma sortzeko. Katixa: "Nik eskultura bidezko objektuak sortzeko eskatu nuen diru-laguntza. Paretetan eta batez ere, lurrean jarritako material planoak erabiliz (oihalak, igeltsua, oholak...) eta koloreekin jolastuz". Argazkia eta marrazkia erabili ditu. Hortik dator neurri batean bildumaren izena, denborari eta eskultura bera osatzen duen objektu edo eduki horri ere erreferentzia eginez.

Bi dimentsioetan lanean hasi eta lan horrekin hiru dimentsiotarako saltoa eman zuen Katixak. Joan den urtarrilean, Bilbo Arte beka eskuratu zuen eta orain gorputzen inguruko mugimendu eta harremanekin dabil lanean, marrazkian zein bideoan.

ESKUALDEA

Baserritar eta ekoizleen eskualde mailako elkarteak sortzeko lehen saiakerak

Etxealdia amaitu den honetan, iaz Larraun eta Lekunberriko Udalak Cederna Elkartearekin batera abiatutako prozesuari heldu diote berriro ere. Lehen sektorea bultzatzeko bidea zein izan daitekeen aztertzeko hainbat bilera egin ziren urte hasieran eta joan den hilean eskualde osoko ekoizle eta baserritar zenbait elkartu ziren. Goizueta, Arano, Leitza, Areso, Imotz, Basaburua, Atetz, Lekunberri, Larraun eta Araitz barne bilduko dituen ekoizle eta baserritarren eskualde mailako elkarteak sortzea adostu da eta saiakera horretan dihardute. Maider Untzueta, Cedernako teknikaria: "Lehenik eskualde txikitik lan egingen da, tokian toki elkartearekin bat egiteko adosten diren helburu eta irizpideak finkatzeko. Larraunek, Lekunberriko eta Araitzek elkarrekin egingen dute lehen fase hori. Ondoren, irailean, egingen den eskualde mailako bileran horiek eztabaidatu eta elkartearen irizpide eta helburu nagusiak zehaztuko dira". Prozesu horretan parte hartzen ari diren bertako ekoizle eta baserritarren ustez elkarteak lau ardatz nagusi jorratu beharko lituzke: elikadura osasuntsua, ingurumena, klima larrialdia eta tokiko garapena.

Hostal
Betelu

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU BAR

ETXKO PIZZAK,
KOPA, BERGIZAK

948504352

LAGUNDU MAILA
LAGUN

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN

GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

BETELU

San Pedro jai xumeak aurten



Zalantzarik gabe, ez-ohiko uda izanen da aurtengoa. San Juan bezperako gau magikoarekin udari ongi etorria egiteko desiotan zeuden batzuk, baina ezinezkoa izan zen ohiko su handirik piztea. Hala ere, zenbaitek su txikiren bat piztu zuten etxe inguruan. Joan den alean aurreratu genizuen moduan, Mugioko Sanpedroak bertan behera utzi zituen kontzejuak. Betelun ordea, arantza hori nolabait goxatzeko hainbat ekitaldi xume egin zituzten. Pintxo dastaketa izan zen ostiralean. Larunbatean berriz, paella baten bueltan elkartu ziren, taldeka, mahai ezberdinetan banatuz eta distantziak gordez. Eta astelehenean, Bete-luko abesbatzako kideek animatuta kantuan aritu ziren herritarrak kalez kale. Printzipioz gainerako herritako jaiak bertan behera utzi dituzte eta ez da ospakizunik izanen. Araizko Udalak ere, joan den hilean kaleratutako bandoaren bitartez, osasun agintariaren gomendiotan oinarrituta Administrazio Publikoak edozein motatako ospakizunak bertan behera uzteko gomendatu duela gogorazi zien herritarrei.

LARRAUN

Jaien faltan,
kultur ekitaldiak
Lekunberrin eta
Larraunen

Larraungo eta Lekunberriko udalek Mitxausenea Kultur Etxearekin batera uda honetarako kultur programa interesgarria antolatuko dute. Uztailan eta abuztuan zehar, ipuin kontalariak, zinea, mendi irteerak, gazteei zuzendutako bakarrizketak eta askoz gehiago izanen dira. Gainera, Lekunberrin Erdi Aroko Azokari eutsiko diote. Ohi bezala, abuztuko lehen igandean izanen da. Aurten azokaren eremua zabaldu egiten da pandemiak sortzen dituen arriskuak saihesteko eta horrez gain jende pilaketak ekiditeko sarrera eta irteera kontrolatuak izanen dira, besteak beste. Bestalde, abuztuaren amaieran egin ohi den Nekazaritza Azoka ere mantentzea erabaki du Lekunberriko Udalak.



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

“Larraun Ura eta Lurra” lehiaketako txapeldunen sari banaketa

Larraungo Udalak legegintzaldi honetan garatu nahi duen proiektua da "Larraun Ura eta Lurra". Herrien garapena, herritarren zaintza, formakuntza, ingurumenarekiko sentibilizazioa eta jasagarritasuna ditu helburu besteak beste. Udaberri honetan zen aurkeztekoa proiektua eta jarduera egitarau zabala zegoen aurreikusita, baina COVID-19a dela eta, bertan behera utzi behar izan zuen. Horren ordez, eta etxealdia eraman-garriago egiteko, gure inguruarekin lotutako lehiaketa jarri zuen martxan.

Astean behin online lehiaketa batean parte hartzera animatu zituzten

herritarrak eta guztira sei saio egin zituzten. Joan den hilean lehiaketan gure ingurua ongi ezagutzen dutela erakutsi zuten herritarrak saritu zituzten. Saio bakoitzeko irabazleak bertako produktuekin osatutako lotea jaso zuen eta sailkapen nagusiko lehen hirurek 120, 100 eta 80 euroko bonua bertako saltokietan erabiltzeko.

Saridunak:

1. saioa: Jone Gabari
2. saioa: Olatz Arangoa
3. saioa: Rosa Satrustegi
4. saioa: Consuelo Satrustegi
5. saioa: Iñigo Oreja
6. saioa: Edurne Legarra

Sailkapen osoko lehen hiru saridunak berriz, Jone Gabari, Joxe Mari Astiz eta Laida Zabaleta izan ziren.



Larraungo ekonomia suspertzen laguntze bonuak

Bestalde, Koronabirusak sortutako etenaldi ekonomikoaren ondoren, Larraungo Udalak ibarreko ostalaritza establezimendu eta landetxeei laguntzeko ekimena jarri du martxan. Abuztuaren 31 bitarte bost euroko deskontua egiteko bonuak jaso dituzte herritarren bertan erabiltzeko. Eta era berean, landetxeek ere jasoko dituzte euren bezeroen artean banatzeko.



ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO



BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



Plazaola Kiroldedia zabalik!

Uztailaren 1ean ireki zuten berriro Plazaola Kiroldedia. Instalazioak erabiltzaileen eskura jarri dira, baina segurtasun neurri zorrotzak bete beharko dira. Aldageletara sartu aurretik eta erabili ondoren, eskuak garbitu beharko dira sarreran egongo den gelarekin edo aldagelako komuneko urarekin eta xaboiarekin. Igerilekuko aldagelak aldi berean 10 pertsonak baino ezingo dute erabili eta horiek ere ezarritako distantziak mantendu beharko dituzte.

Igerilekua igeriketa praktikatzeko bakarrik gordeko da, 30 pertsona, hiru kaletan banatuta. Gainerako instalazioetan ere edukierak murriztu egin dira: Jacuzziak, lau pertsona gehienez, muskulazio-gelan 20, paddel pistetan 4 eta squash pistan 2 lagun.

Pilotariak hasi dira pilotalekura itzultzen

Kirol instalazioak pixkanaka irekitzen hasiak dira eta Lekunberriko pilotalekua ere ekaineko bigarren astean zabalduta. Larraun Pilota Elkarteko pilotari batzuk euren entrenamenduekin hasi dira. Ahal den neurrian distantziak mantentzen eta talde txikitan. Igor Mitxaus entrenatzailea: *"Uztailean, elkarteko pilotariekin Larraungo frontoi irekietan txapelketa azkar bat egitekotan gaude. Lau asteburutan jokatu da, Oderitz, Albiasu, Astitz eta Errazkingo frontoietan. Eta horrez gain, etxealdiaren aurretik Goizuetako pilotariekin adostua genuen herriarteko bat ere jokatzeko aukera lantzen gabiltza".*

Txirrindularitzako bi etapa amaiera ospatuko dira datozen hilabeteetan Lekunberri

Azken alean aurreratu genizuen bezala, urriaren 21ean Espainiako Itzuliaren bigarren etapa Lekunberri amaituko da. Lekunberriko Udala dagoeneko buru-belarri dabil txirrindulari proba horren antolaketak ekartzen dituen eskakizunei erantzuten. Sari banaketa plazan egiten da. 170 kazetari etorriko direla aurreikusten dute eta egun horretan frontoia izanen dute lantoki. Horietatik 120 nazioarteko hedabideetatik etorriko diren kazetariak izanen dira. Baina horren aurretik, bigarren etapa amaiera bat ere izanen da gurean. Uztailaren 23an Emakumezkoen Espainiako Itzuliaren bigarren etapa ere Lekunberri amaituko baita. Gizezkoen ibilbide bera egiten dute eta Iruñetik abiatu eta San Migeletik barna etorriko dira. Lehen txirrindulariak 18:30etatik aurrera iristea aurreikusten da.

Kirol teknikaria ordezkatzeko lan eskaintza

Mankomunitateko Kirol teknikaria behin-behinean ordezkatu eta lanpostua osatzeko deialdia egin dute udalek. Oposizio bidez esleituko da lanpostua. Uztailaren 24ra arte izanen da eskaera aurkezteko epea.

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

Larraun Bizi, aurrera jarraitzeko baikortasunez

Orain dela 5 urte jarri zuten martxan Larraun Bizi ekimena hainbat herritarrek, gure ibarraren dinamizazio soziala, zubiak eta espazio bateratu berriak eraikiz talde izaera laguntzeko eta bultzatzeko asmoarekin.

“Ordutik hona gauzak mugitu egin dira Larraunen, bizirik gaudenaren seinale, nahiz eta erroko arazoak, herri txikien despopulazioa eta dispersioa, esaterako, mantendu egiten diren.

Edozein modutan, egungo egoeran eta Larraungo bizipoza laguntzeko, ekimenaren birkokapena ezinbesteko ikusten dugu eta horretarako bihotzez eskertzen dugu herritar guztien laguntza”.

Joan den hilean inkesta bat zabaldu zuten Larraun Biziko kideek Larraungo bizitza sozialari tenperatura hartzeko asmoarekin eta orain inkesta horretan jasota emaitzen berri eman digute.

Parte-hartzea boluntarioa izan den arren, herritar eta eragileen aldetik jasotako lagina aski izan da diagnosi orokorra egiteko. Nabarmentzekoa izan da gainera emakumezkoen parte-hartzea, %59,5ekoa izan baita. Eta udalerriei erreparatuz gero, parte-hartzea erdibana osatu da Lekunberri (% 53) eta Larraungo (% 46) biztanleen artean.

Jasotako emaitzak:

1. Baloratu 1etik 10era bailarako giro soziala momentu honetan

- Bataz bestekoa: 5,9.

2. Azken urteetan Larraungo giro sozialak zure ustez...

- Okerrera egin du: %7,25
- Berdintsu mantendu da: %30,43
- Hobera egin du: %57,97
- Ez dakit: %4,35

3. Ibarreko bizilagunon arteko harremana nola ikusten duzu, orokorrean?

Balorazioa 1etik 5era (1.Oso hotza, urruna, dispertsoa; 5. Oso konfiantzazkoa, hurbilekoa, estua):

- Bataz bestekoa (1-5): 3,26 (1-10 balorazioa hartzen bada: 6,5)

4. Ekimen eta ekitaldi ezberdinak antolatzen dira. Nola baloratzen duzu dagoen eskaintza?

Balorazioa 1etik 5era (1. Oso eskasa, ez ditu nire nahiak asetzen; 5. Oso ona, guztiz asetzen ditu nire nahiak):

- Bataz bestekoa (1-5): 3,16 (1-10 balorazioa hartzen bada: 6,32).

5. Larraunen, guztira, 50 eragiletik gora daude (agente sozialak, elkarteak, kontzejuak, udalak...). Uste duzu komenigarria dela horien guztien arteko elkarlana bultzatzeko EKIMENAK egitea?

- Bai, oso beharrezkoa ikusten dut: % 47,83
- Bai, ongi ikusten dut: % 37,68
- Ongi legoke, baina ez da lehentasunezkoa orain: % 10,14
- Ez da beharrezkoa: % 2,90
- Ez zait inporta: % 1,45

6. Bailararen bizitza soziala -bizipoza- laguntzeko ELKARGUNE eta ERREFERENTE BATERATU baten beharra dagoela uste duzu?

- Bai, oso beharrezkoa ikusten dut: % 27,54
- Bai, ongi ikusten dut: % 49,28
- Ongi legoke, baina ez da lehentasunezkoa orain: % 11,00
- Ez da beharrezkoa: % 5,80
- Ez zait inporta: % 0

7. Ezagutzen baduzu, interesgarria ikusten duzu Larraun Bizi ekimenak egin duen aportazioa?

Balorazioa 1etik 5era (1 Batere interesgarria; 5 oso interesgarria).

- Bataz bestekoa (1-5): 3,78 (1-10 balorazioa hartzen bada: 7,56)

8. Nola baloratzen dituzu Larraun Bizitik bideratutako proposamenak (LOGOA, AGENDA, ETXEBIZITZA, ALTXORAREN BILA, LIPDUB, TOPALARRAUN)

Balorazioa 1etik 5era (1 batere interesgarria; 5 oso interesgarria).

- Bataz bestekoa (1-5): 3,78 (1-10 balorazioa hartzen bada: 7,56).





Balorazio positiboa

Jaso diren datuek tendentziaren ona erakusten dutela azaldu dute Larraun Biziko kideek, aurrera begiratzeko baikortasunarekin.

Aldi berean giro soziala hobetu daitekeela diote, giza harremanak eta eskaintzen diren ekimenen balorazioak horrela erakusten dute. Eta elkarlana bultzatzeko eta erreferente bateratuak sortzeari dagokionez, oraingo egiteko moduak hobetu, hausnarketa egiteko beharra eta ekimenak bideratzeko modu berriak azalerazi dira.



“Gure aldetik, Larraun Bizirekin, jendeak erakutsitako bidetik jarraituko dugu lanean. Eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu duten guztiei!”



ARAXES GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO ARAXES

GARBIGUNE IBILTARIA

Uztailak 23, osteguna, PUNTU GARBIA MUGIKORRA pasako da. Bertara, honako hondakin mota hauek eraman behar dira:

- *pilak, mugikorrak
- *bonbilak eta fluoreszenteak
- *pinturak, barnizak, disolbanteak...
- *autoen bateriak, olioak...
- *foner, tinta kartutxoak...
- *elektrogailu txikiak
- *aerosolak, lixiba
- *radiografiak, termometroak

Herri bakoitzean, etxeko olioak biltzeko dagoen ontziaren ondoan kokatuko da ondorengo ordutegian:

BETELU:	10:00-11:00 (ESKOLA AURREAN)
ARRIBE:	11:00-11:30
ATALLU:	11:30-12:00
AZKARATE:	12:00-12:30
GAINTZA:	13:00-13:30
UZTEGI:	13:30-14:00
INTZA:	14:00-14:30





emozioen munduan

●● Lorea Zulet (Psikologoa)

Antsietatea

Antsietatea emozio naturala da, gure organismoak mehatxu gisa interpretatzen duen egoera baten aurrean ematen duen erantzuna. Honen atzean dagoen oinarritzko emozioa beldurra da. Bere sinonimoa estresa litzateke.

Antzinan, gure estresa modu automatikoan aktibatzen zen arrisku erreal baten aurrean, harrapakari baten aurrean esaterako, gure gorputza ihesaldirako prestatuz. Beraz, antsietatea gure biziraupenerako beharrezkoa da. Momentu egokian eta modu kontrolatu batean agertzen bada oso erabilgarria izan daiteke. Erantzun azkarrak behar dituzten egoeretan aktibazio fisikoa errazteko, mehatxu edo arriskuen aurrean erne egoteko eta errendimendua eta kontzentrazioa errazteko balio du.

Gaur egun, antsietatea beste egoera moten aurrean aktibatzen da, gure buruak mehatxu bezala interpretatzen dituenak: lana, azterketak, hipotekak eta bestelako kezken aurrean. Hauei erantzuten fisikoki haie-tatik eskapatu behar bagenu bezala: ahoko lehortasuna, arnasketa urduria, muskuluen zurruntzea... Antsietate edo estresa denboran mantendu daiteke antsietate egoerak okertuz, bizitzen dugunaren eta gure buruak hautematen duenaren arteko deskonexio bat eraginez.

Antsietate egoera denboran mantentzen bada, beste sintoma hauek agertu daitezke: buruko mina, sabeleko mina, nekea, izerdia, zorabioa, kontzentrazio eza, autoexijentzia,

totelka hitz egitea, ekiditea... Honek guztiak kontrolik gabeko egoeretara, blokeatzera edo modu egokian ez erantzutera eraman gaitzake. Okerreneko kasuan izu-atake bat izan dezakegu.

Eta, zer dauka honek ikustekorik bizitzen ari garen egoerarekin? Pandemi bat egoera estresagarri bat da, dudarik gabe. Ziurgabetasunak inguratzen gaitu eta zaila da hori maneiatzea. Honek antsietatea edo estresa eragin dezake. Gainera, oso azkar moldatu izan behar gara etxean ego-tera eta orain berriro kalera ateratzea beldur berri asko dakarkigu,

Gure antsietatea kontrolatzen ikasteko, egoera estresagarri edo negatiboegi aurre egiten diegunean sortzen ditugun pentsamenduak identifikatuz hasi behar dugu. Burutazio negatibo hauek, askotan gehiegizkoak izaten direnak, egoeren interpretazio desegokietatik jaiotzen dira. Txarto adierazitako ideia desegoki hauek gure emozioengan eragin zuzena dute.

Pentsamendu egokiak sortzeko estrategia batzuk azalduko ditugu orain. Lehenengoa... adierazpen absolutistak ez erabili: dena ezer ez, beti, inoiz... bezalako espresioak. Bigarrena... gehiegikeriak ekidin, katas-trofitak ez izateko, eta "ez dut gustuko" bezalako esamolde egokiagoak erabili horren ordez. Garrantzitsua da konturatzea dena ez

dagoela zure esku. Baita ere autoexijentzia maila murriztea, horretarako laguntzen duen zerbait pentsatu: zure lagun bati berdina gertatuko balitzaio, zer esango zenioke? Honekin erlaxionatuta: "...beharko nuke" erabili ordez, "gustatuko litzaidake..." erabili. Azkenik, zure buruari etiketarik ez jarri, horren ordez, jarrera edo egoera zehatzetara mugatu: zure buruari "penagarria naiz" esan ordez, "egindako hau ez zait gustatuko litzaidakeen bezala atera" esazioz. Horiez gain, metodo oso erabilgarria meditazioa da.

Gainera, fisikoari eta kasu egiten, gorputzak "ihesaldirako" prestatzen duenez gehiegizko energia sortzen du nolabait deskargatu behar duguna. Nola? metodo erabilgarriena eta azkarrena: kirola. Honek adimena eta gorputza erlaxatuko ditu.

Beraz, berarekin bizitzea eta kudeatzen ikasi behar dugu, gure egunerokotasunean ez gaitzan blokeatu.

Zure zalantza pertsonalak Lorearekin argitu nahi dituzu?

Jarri harremanetan:

l.zr.psicologia@gmail.com / 676 975 810.

Instagram: @l.zr.psicologia



Xanti Saigos

Google Play edo App Storetik jaitsi ondoren, ireki eta lehenengo pausoak hizkuntza aukeratu eta Bal-dintzak onartzea izango da. Datuak Cl@ve PIN zerbitzuaren bitartez sartzen dira aplikazioan. Zerbitzu honetan erregistratuak bagaude, "Acceder" eman eta eskatutako datuak betez prest izango dugu. Erregistrotako beharrezkoak "Registrar" emango dugu eta pausoko beharrezkoa da "Codigo Seguro de Verificación" edukitzea eta hau aplikaziotik eskatuz 2-3 egunetan etxean izango dugu gutun bidez.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak gidatzeko beharrezkoak diren dokumentuak mugikorrean eramateko aplikazioa atera du, miDGT. Hemen dauden dokumentuak baliozkoak izango dira beharrezkoan, zirkulatzeko agiria, autoaren dokumentazioa eta fixa teknikoak edukiko ditugu eskuragarri.



miDGT



digitala
smart
bidali ikusi
ortekatu
app
download

JAKINDUN: HEZKUNTZA-KOMUNITATEARENTZAKO BALIABIDEAK

Zalantzez beterik gaude eta ez dakigu zer gertatuko den ikasturte berriari ekiteko orduan. Jakindunek bere baliabideak eskaintzen dizkio hezkuntza-komunitate osoari eta, dagoeneko, Matematika, Fisika eta Kimika ataletan gero eta eduki gehiago daude gure YouTubeko kanalean: <http://bit.ly/Jakindun>

Online unibertsoaren gorakada.

Egoera honetatik irakaspen bat atera baldin badugu, teknologiari buruz ari gara, argi dago hezkuntzak online ikasteko sistemen erabileraren gorakada izan da. Beraz, ikastetxeetara presentzialki oso jende gutxi itzultzen ari den honetan, etxetik jarduteko bideo laburrak, eta azalpen errazekin, inoiz baino beharrezkoagoak izango dira, bereziki azken etapetan diharduten ikasleentzat.

Jakindunek jarraitzen du izaten irakasle zein DBH eta Batxilergoko ikasleen laguntzaile ona itzulera prozesu honetan. Ikasgaien ulermena hobetzen den heinean, bideoek ikaslearen motibazioa areagotu dezakete eta baita irakaslearen jarduna hobetu ere.

Lehen helburuak

lido honetan, pozarren gaude, duela bi hilabeteko mezuan aipatzen genituen oinarrizko helburuak betetzen hasiak direlako: Internet euskarazko eduki zientifikoz betetzea (gure presentzia handitu da eta Euskaraldiak etxealdian euskara gehiago erabiltzeko egin zuen deialdian lagungarria izan da) eta komunitatea eraikitzea (ikasle, irakasle eta gurasoen eguneroko jarduna laguntzeaz gain, loturak sortu dira).



Antzonia
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antzonia.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER
634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA - HARATEGIA
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

AURRERA TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24

TAXI SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADI!!! TLF BERRIA:
948 51 30 32

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN
GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

panaderia okindegia
GALBURUeco
Egurrezko laboreko ogi ekologikoa
Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42

UZTAILA

23 | LEKUNBERRI:

Emakumezkoen Espainiako Itzuliaren bigarren etapa.

16 | BETELU - MUSIKA:

Kontzertua herriko plazan, 21:00etan, "Altxatu".

ABUZTUA

2 | LEKUNBERRI:

Erdi Aroko Azoka.

26 | LEKUNBERRI:

Nekazal Azoka.

ESKU PILOTA PROBATU NAHI AL DUZU?

Larraungo Pilota Elkarteak 2012an edo 2013an jaiotako neska-mutikoei esku pilotan proba egiteko aukera eskainiko die datorren uztailaren 21ean eta 23an, arratsaldeko 16:30ean, Lekunberriko pilotalekuan.

Informazio gehiago:

larraunpe@gmail.com / 675 210 254.

LAN BILA

Etxe / Landetxeen garbiketarako edota pertsonen zaintzarako lan bila dabilen emakumea. Interesik baduzu, nirekin harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 603 138 100.

SALGAI

Ura berotzeko gasoliozko galdara salgai, 800 litroko deposituarekin. BAXIROCA-MOD-GAVINA 20 GTI SP. Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara: 646 870 837 (Bixente).

EROSTEKO

Land Rover Defenderra erosiko nuke, berdin dio ze egoeratan dagoen: ITV gabe, matxuratua, kolpearekin... Jarri harremanetan: 623 179 537.



TAXILON

Lontxo
Otamendi
Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitx

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com



Cada vez que compras
en el pequeño comercio,
haces que la luz se mantenga
encendida. — Denda txikietan
erosten duzunean, argiak
pizturik jarraitzen du